

Gernu eskrezioa

Funtzionatzean, organoek hondakinak sortzen dituzte, hala nola karbono dioxidoa, urea... Hauek odolean garraiatuak dira.

Organismoak hondakinen metaketa kalte du.

Beraz, odola garbitu behar da.

Karbono dioxidoa biriketarik kanporatzen da.
Beste hondakinak giltzurrunek tratatzen dituzte.

Gure gorputzeko bost odol litroak egunean hogeita hamasei aldiz iragaten dira giltzurrunetatik.
Beraz, egun guzietan ehun eta laurogei litro iragaten dira giltzurrunetatik.

Odola zikinkeriaz betea da giltzurrunetara sartzen denean.

Zikinkeria hauek iragaziak dira, eta ondotik gernerarekin betan kanporatuak.

Hondakin horiek nefronetan iragaziak dira.
Nefronak iragazi-unitate ttipi-ttipiak dira, eta horietarik milioi bat baino gehiago ditugu.

Gernua, nefronen funtzionamenduaren ondorioa da.

Gernuan odolaren hondakinak badira, baina oroz gaineratik ura: gerneraren bolumenaren % 95.

Litro bat eta erdi gernu ekoizten dugu egunero.
Horregatik dugu bi litro ur baino gehiago edan behar egunean.

Gernua giltzurrunetatik ateratzen da ureteretatik iraganez; bixikara doa eta hartan egoten da.

Bixikako gerneraren bolumena berrehun mililitro baino gehiagokoa delarik, bixikaren pareta zabaltzen zaigu, eta horrek digu gernua egiteko gogoa sortzen.

Zenbait muskulu erlaxatzen baitira, gernua *uretra* deitu isurbidetik kanporatzen du organismoak.